

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Patxi Abasolo Askasibar

*Aretxabaleta,
Gipuzkoa
(1921-2014)*

Aurkibidea



Biografia



Areantza auzoko Etxeberri baserrian jaio zen, zortzi anai-arrebatatik zaharrena. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Elgetako Angiozar auzoko Goimendi auzuneko Zulueta baserrikoa zen (gaur egun Angiozar Bergaran dago). Aretxabaletako Goroeta ("Korueta") auzo-eskolan ikasi zuen bi urtez, euskaraz. Gero beste bi Aozaratza ("Azatza") auzoko eskolan, eta azken biak Maristetan. Koruetako eskolak bakarrik jaso zituen euskaraz. 13 urterekin Gasteizera joan zen erdaraz ikastera, ortu sail handidun etxe batera, morroi. Bost urtez jardun zuen bertan, ortua zaintzen, eta egunero barazkiak Gasteizko azokara eramaten zituen. Etxera itzuli eta gutxira soldaduskara joan zen. Gero etxean geratu zen, soro eta ganaduak zaintzen. Oilo eta oilasko askoko granja bat ere izan zuten etxean hamar urte inguruan. Hitzun ona da eta lehenagoko bizimoduaz gain, etnografia gaiez ere azalpen zehatzak ematen ditu. Elgetako Angiozar auzoko Goimendi auzuneko Gontzarri baserriko [Maria Gallastegi](#)rekin ezkondu zen. Zortzi seme-alaba dituzte.

Zintak

ARE-010

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Aretxabaleta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-03-29
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin

ARE-011

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Aretxabaleta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-03-29
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

ARE-045

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-06-09
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

ARE-046

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-06-09
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

ARE-079

- **Proiektua:** Gipuzkoako zuhaizti motzak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre 'Marron', Jose Ramon - Aragon Ruano, Alvaro
- **Data:** 2011-01-19
- **Iraupena:** 23 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Gipuzkoako Foru Aldundia

Pasarteak

1. Kobrezko galdarak; ganajatekoa egosi egiten zen

- **Erref:** ARE-010/002
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:30. **Bukatu:** 00:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Kobrezko galdarak zertarako erabiltzen ziren. Batzuk ganajatekoa prestatzeko izaten ziren; arbia egosi egiten zen abereei emateko. Beste batzuk, morokila prestatzeko erabiltzen zituzten. Ganajatekoa nora botatzen zitzaaien behiei.

Transkripzioa

- Maria: Bestela, horreik eukiko dittu iguel berrehun urte iguel.
- Horrek galdarok zetako erabiltzen zian?
- M: Horreik, ba...

- Patxi: Horreik usau gutxi.
 - M: Usau gutxi, baiña [batzunbatzuk] bai.
 - Ze zian dekoratzeko gehixao?
 - M: Baiña arbixa egosi ta holako gauzak eitteko.
 - P: Arbixa egosi ganauendako, pentsue eitten zan. Arbixe...
 - M: Ta ure berotu ta...
 - P: Arbixe da ganauendako, guretako azie edo porrue, ba, berdura bat. Botatzen jako zahixe edo urune edo bota ta... Beste pentsurik ez auen.
 - M: Oin urtiokin... ba... nik berrogeta hamahiru urte daroiet eta nik hola garbittu nittuen ta, ba, hor adorno daz.
 - Eta, orduan, galdara horrek erabiltzen zian, hori, ganaujatekua preparatzeko?
 - M: Bai, bai. Edo morokilla eitteko. Ha txikixaue. Morokilla eitteko.
 - P: Bai, edozein zerbiziño itten euen horreik.
 - Baiña noberan bazkaixa preparatzeko ez?
 - M: Ez.
 - P: Bazkaixa preparatzeko ez, haundixek die bazkaixa preparatzeko.
 - Horretarako lapikuak?
 - P: Bai, lapikuak.
 - M: Ure beroketako bai. Orduen lehengusue zela euen bakarrik, hor gelatxuen ixei ta ure berotu ta itten zan. Ta arbixa egosi be hola itten zan.
 - Eta ganauari arbixa egosi eta gero nora botatzen jakon?
 - M: Askara.
 - P: Askari ganauei. Izeten zien kamelak edo beste holako kajoi txiki batzuk...
 - M: Kamelatan ipintten jaten.
 - P: ... eta han ifintten zan erraziñue ta botaten jakon...
 - M: Arturun pixkatekin edo nahastu ta...
 - P: ... urune euena-ta nahastu ta ha zan...
 - Eta esaten detsazue, kamela?
 - Guk kamelie esaten gutsen, bai.

2. Baserriko bizimoduaren aldaketa

- **Erref:** ARE-010/004
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:03:35. **Bukatu:** 00:05:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Auzoaren inguruko kontuak. Baserriko bizimoduaren aldaketa. Egun baserritik jende gutxi bizi da; soldata kanpotik ekartzen da gehienetan. Baserri batzuk hustu egin dira; ondorioz soro handiagoak daude egun.

Transkripzioa

- Hemen auzua asko aldatu da zu umia ziñanetik? Basarrixak galdu ein dia edo...?
 - P: Bai, baserrixen bizittie, baserrixen lan eindde bizittie gastau ein da ya. Etxiek segitzen dabe gehixenak, baiña [fabriketik] bizi da jabie jeneralien. Hustu be ein die, ba, bat Sardan(e)ta, Ga(ra)ikuen be bi bizitza ziela, ha kontau, bi, Intxaurbe hiru...

- M: Txikiñekuen beste bat.

- P: Txikiñekuen be beste bat bazala... Neuk ez nittun ezautu, baiña igul aittek edo... Lau. Lau behintzet oin ez die ezautzen. Ta bestiok, ba, pixkat zertu itten da. Geratzen danandako, ba, lur gehixao edo... Ez dakit, ba, zela esan. Nasaittu itten da pixkat. Guk geuk, ba, oin daukou granjie esaten [dutseu], txikixe edo haundixe. Ba, daukou eskerrak horrei Caja Laboralan terreno danok hartu dittuenai, hau Intxaurbe hustu zanori be bai ta horritxi... Hola, desaparezitzen zien batzuk beste batzundako bentaja etorten die.

- Lehen ze izaten zan, basarri bakoitzak terreno gitxitxo inguruan edo...?

- P: Bai, ez... bizitteko beste terreno iñok ez euen. Onbre, inbernaderuetara ta terreno gutxiauaz badare [portiek], baiñe harek biher dittu bere urek [gure aiñe] ta beste... beste gauza batzuk biher dittu handik bizitten hasteko.

- M: Lehenau kamiñoik be ez euen, oin kamiñue dao ta...

3. Bidegintza; lehenengo autoa baserrira noiz ekarritakoa

- **Erref:** ARE-010/005
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:05:30. **Bukatu:** 00:09:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Bidea ere asko hobetu da azken urteotan. Bidegintza kontuak; hasiera batean eskuz eta auzolanean egindako lana. Poliki-poliki bideak hobetuz joan ziren. Lehenengo autoa noiz eta nondik ekarri zuen. Gasteiztik Aretxabaleratako bidaia.

Transkripzioa

- Kamiñua lehen ze zan?

- M: Bidia, bide zaharra.

- Burdibide edo halako...?

- P: Bai.

- M: Pixkat konpondu ta hola todounokin ta, ba, kotxiek ibiltten giñuzen...

- P: Beti ibili ga´ geruao hobetua guran. Bidegiñen lehenengo eskuz [ein giñuen]. [Irabandi] Arientzaraiño eskuz. Apur bat zabaldu ta todouno puskat bota paliaz ta kotxie pasetako bestien, justo samar. Gero gehitxuao, gero Boliñaraiño zeoze. Baiñe eskabadoraik eta ez euen ta dana eskuz. Ta hori danoi auzolanien, e! [Auzoko dana]... auzoko jentie juntauta.

- Eta gitxi gorabehera akordatzen jatzu ze urtetan ein zenduen bidia?

- M: Hau kamiñuau?

- Bai. Bueno, edo lehelengo...

- M: A! Lehelengo horrek bidiek? Ba... horrek ein zien berrogeta...

- P: Bai, urte askotxo da.

- M: Berrogeta hamar urte.

- P: Urte askotxo da!

- M: Berrogeta hamar urte.

- P: Automobillek pasau ezin euen...

- M: Bai, [...] zanien, [...] zanien.

- P: Bai.

- M: Orduentxe ein eben.

- P: Bai. Automobillik ezin zan etorri artien ezelakoik be. Ta ordueintxe hasi giñen pixkatxo bat zabaldu eta apurtxo bat hobetzen.

- Eta ordura arte, bueno, ba, plazara edo nunbaittera jeisteko?

- M: Astuen.

- P: Ba, plazara... bai, bai.

- Astuakin, ta bidia zer? Neguan eta, lokatza ta...

- P: Bai, bai, bai, ba, euen moduen, ahal zan moduen. Ez auen orduen kotxien amesik be ez auen. Ez eueken ez alkatiek ta ez [alkatetxuek] kotxeik. Ta...

- M: Hori bidioi pixkat konpondu zanian ekarri giñuan, ba...

- P: Geuk be bai ta beste batzuk be bai. Ta oin, berriz, badakiu, danok bana.

- M: Zitroen furgonetatxo bat.

- P: Bai, makiña bat ibili giñan.

- M: Pagau giñun larogei milla pezeta.

- P: Larogei milla pezeta.

- Eta orduan...

- M: Ha zan diru pillua

- P: Bai.

- M: Larogei milla pezeta.

- P: Halaxe da, ba. Vittorixetik ekarri neuen. Hemen euki neuen lagun bat [...] lana sortu zanian Telleria zan apur bat jefioi ta harek lagun ein osten. Hemen ez auken kotxe batek be ajenziaik. Hemen Vittorixetik behera, Bergarara bittartien, ez dot uste euenik bat be. Ta haintxe Zitroenan haintxe horrek esan osten [...] horrek haintxe erosi leikiela. Ta berak lagun ein osten ta kotxia hartu nauen. Eta kotxia... Nik karneta atarata baneuken, baiña atrebidu ondiok... ta bieldu osten bere lagun bat kotxie ekarteko etxera, ba, Vittorixen hartu ta etxeraiño ekarteko. Zera zan, [Bedoñako Errastiko] Timoteo. Ta hartu geuen kotxioi, Timoteok hartu euen kotxioi, ta Vittorixatik apurtxo bat urten geuen ta “Bueno, oin, ba, heuk erungo dok?” esan osten, ta “Ba, bai”. Nik bolantie, ba, ikesitte neuken. Bueno, ba, banatorrek. Ta kamioi bat etorren aurrien ta “Hi, beraana ez fan gero, e!” bera bilddurrez, ta “Ez, ez, ondo fango nok”. Eta [trankil] etorri nitzen. Gero berak be ekarri euen zati baten barriro, baiña Mondraura, bera Mondraura fan biher zan ta. Ta Mondrautik Atxabaltea primeran ekarri nauen, ta baiñe ezebe ikutu be ein barik eta ondo. Ha exitue zan; ya ondo ta ya esta. Gaur arte.

- Oseake, lehelengo autuak istorixia daka...

- Bai, bai, bai.

4. Lehenengo autoa Aretxabaletan

- **Erref:** ARE-010/006
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:09:40. **Bukatu:** 00:10:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Lehenengo autoa Aretxabaletan nork ekarri zuen. Arrue.

5. Baserriaren historiaren nondik norakoak

- **Erref:** ARE-010/007
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:10:45. **Bukatu:** 00:13:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Baserriaren historiaren gorabeherak. Badirudi aittajaunak erositakoa dela; gerora basoak eta lur berriak gehitzen joan dira. Etxezahar; Etxebarri. Laietan ibiltzen zenean umetan, teila zatiak agertzen ziren Etxezahar izeneko parajea; esaten dutenez baliteke jatorrizko etxea bertan egon izana eta gerora tokiz aldatu izana.

Transkripzioa

- Basarrixan historixia badakizue, aittari edo amari entzunda?
- Noizkua danik eztakitt.
- Betidanik egon da zuren familixia bizi izaten?
- Nire aittek esaten euen gure aittajaunek Joxe Leonek erositta euela hau etxiau, hogeta hamabi errialien, haizenda, etxe eta dana. Baiña dirue ba, norberak eukena baiño aurretxaualo fanda, dirue topau in biher. Eztakit nungo abariek emun utsela milla erriel ero-ta. Hola, holaxe topeutako diruaz erosi euen gure aittejaunak. Eta harrezkero geurie da. Gure aitten sasoiak erosi zan hor baso zati bat. Eta ni barriz harrezkero ibilli naz ... terreno barrixek, oiñ honek mutillok hartu daue beste zati bat granjie eitteko, beste zati bat, kanpokue zan [...].
- Maria: Lehenago esaten ei euen hau etxiau han behian zala. Granjie dauen lekuan. Etxezar dauko harek izena. Eta Etxebarri hemen. Itxuria handik hona etxioi ganbixau zan. Oiñ bostehun urte-ero.
- Han labretan ibiltten gintzenien, laixen-eta, teille apurtxuek-eta agerketan zien lurrien. Eta teillie ezta..., Kurtzeberrin ezta teillarik. Teillie hemen, e, nunbaitt teillatun bat egongo zan; danoi be izengo zan txabola morukon bat, ezta inporta, haxe etxia.
- Ha Etxezar eta?
- Eta Etxebarri hau. Hau da azkenengua.

6. Azken urteotan erreteroeak baserria erosi dute

- **Erref:** ARE-010/008
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:13:10. **Bukatu:** 00:14:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Baserri gehienak errentan hartutakoak ziren. Azken urteotan erosi dira gehienak.

Transkripzioa

- Sasoi baten hemen norbera zan basarrixan jabia, ala erreteruak ziren asko?

- Erreteruek gehixenak. Oindio zenbat urte da ba honek Azatzako Urrutikue-ta saldu ziela be?

- Maria: Berrogeta hamar urtetik honutz etxe asko erosi daue basarritarrak. Hemen auzuen bertan be Ardantza, Andikue... Eta [...] orduen ez zalako erosi hor dabit, e, oindio erreterue badago hor.

- Eta orduan etxejabe haundirik bazeuan?

- Hemen Txikiñekue bat. Horreik, e, terrenoik gehixen eukiko daue, mendixen be sail haundixek, ez dakit mugarrixek be nondik nora dien jakingo dittuen danak.

- Maria: Oin hori bardindduta dau.

- Bueno, guk oin be ez dauku baso asko, e.

- Maria: Baiña esan gura dot hori jauntxo izete hori bardindduta dagola oin. Lehen jauntxuek zienak oin erak igual atzerago.

7. Baserriaren errenta garitan

- **Erref:** ARE-010/009
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:14:35. **Bukatu:** 00:15:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Etxe-jabeari garai batean baserriaren errenta garitan ordaintzen zitzaion.

Transkripzioa

- Etxe-jabiari errentia zela pagatzen jakon, garixakin edo diruakin?

- Garixakin, esaten daue, garixakin. Neuk errentaik ez dot pagau.

- Maria: Sarritan familixa galantak, garixa entregau biher eta etxerako ogixa falta.

- Artue, zela-hala artue janda bizi.

8. Ez ziren auzotik irteten

- **Erref:** ARE-010/012
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:18:15. **Bukatu:** 00:19:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Umetan ez zuten joera handirik izaten aldameneko auzoetara joateko.</p>

Transkripzioa

- Zuek umetan hara [Otalorara] joaten ziñazien?

- Ez dogu guk jokera haundirik erbestera fateko, lehenago ez euen hainbesteraño, auzotik ez euen urteten.

- Maria: Auzo bakoitxak bere...

- Auzotik ez geuen urteten. Larriñora fan gintzen oin urtebete, Txikiñeko

Dolores eruen geuen. Bera sekule Larriñon egon barik euela, eta laurogei urte euken. Ta sekule Larriñon egon barik.

- Baiña orduan erromerixetara eta asko mobitzen ziñazien, oiñez, batetik bestera?

- Maria: Honek gero gazte-denporia Bitorixan kriaui...

- Bueno, eta hemengo nire lagunak be nora fango zien ba, iñora be ez.

- Maria: Zuk bost urte han ein ziñuzen, zeoze ingo euen hemen geratu zienak be.

- Orduan auzo bakoitzeko umiak auzo barruan?

- Auzo inguruan, bai, auzo barruan.

9. Umetako borrokak

- **Erref:** ARE-010/013
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:19:20. **Bukatu:** 00:20:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Umetan, auzo-inguruan ibiltzen ziren. Umetako jolasak. Okerkeriak, borrokak.</p>

Transkripzioa

- Eta beste auzokuak?

- Sakalamandaka eitten geuen Txikiñeko Felisik, oiñ Matikon amandria danak-eta. Jolasian, bata-bestia jarritta, domeka atsaldietan. Buenoo! Takarrara edarrak eitten gittuen.

- Eta beste auzoko umiekin zelakua izaten zan relaziñua, ona?

- Burrukan be gehixao eitten zan oin baiño, burrukan gehixao eitten zan.

Bai, hemengo Ardantzako bat be okerra zan apur bat. Berak be ingo-euen, baiña bestiek ifintten ibiltten zan, bestiek burrukan ifintten, eta neu ifiñi niñuen baten. Eta Larraiñ Etxebarriko Santigaz, eta oilluek txitak atarateko arrautzak kanbixau ein biher izeten zien beste etxe batetik, razie kanbixetearren-eta. Arrautzak kanbixau eta etorri Mendiolati-ero, ta burrukan ifiñi gu; fan ha ta. Eta eztakitt zer ein geuen. Arrautzak apurtu ero... eta gero etxera. Baiña borroka asuntue gehixao eitten zan, harrieta.

- Esan dozu auzoko umiak jolasian asko egiten zenduela?

- Auzokuek bai. Auzokuek.

10. Umetako jolasak

- **Erref:** ARE-010/014
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:20:55. **Bukatu:** 00:24:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Umetan, auzo-inguruan ibiltzen ziren. Umetako jolasak: "sakalabandaka"; eta abar. Neska eta mutilen jolasak. Tortoloska; sokasaltoan.

Transkripzioa

- Eta akordatzen jatzu zer jolas?
- Sakalamandaka.
- Eta zer jolas da hori?
- Takarraran eta bestiek atzetik jarraitu; eta ebaketan eutsenien, ebaketan auenak geratzen zan atzetik jarraiketako, eta bestiek ihes eitten euen. Eta hoixe da. Korridu eitten dau. Azkenien zertxuena geraketan da harrapau ezin dittuenekin, eta bestiek ihes eitten daue. Eta beste bat zan, zera aulbiraka, eztakitt zela zan, ahaztute dauket, aulbiraka. Beste jolastxo bat.
- Eta gero kaniketan ero, intxaurrekin ero?
- Maria: Torre-torreka.
- Honek jakingo dau hori, kaniketan...
- Eta torre-torreka zer da?
- Ba intxaurrak ifiñi bakotxak bat pilluen, eta aurretik ha jo biher zeuen, eta jota zertzen bazan, ba ha zeutako.
- Eta horretarako ibiltzen zien intxaur klase diferentiak-edo?
- Normalak, etxetik erueten giñuzen intxaurrak.
- Eta diferentiak izaten zien nesken eta mutilen jolasak?
- Mas bien, e, aparte ibiltten giñen bai, tortoleska-ta neskak. Tortoleska, sokasaltuen...
- Tortoleska zela da?
- Maria: Tortolesa, tortolesak dauzka lau alde, ezta.
- Billotsan hankan daz horrek tortolesok.
- Maria-Bakotxak lau tortoles. Hola bota eta, zeñek txandaka, eta harei lau aldiei buelta emun biher dutsazu. Pelotie gora bota eta rak buelta, lau aldietara.
- Maria: Abilidade haundixa bihar zan pelotia bota eta kanbixatzeko?
- Maria: Bai. Baiña itten-itten abilidadie hartzen zan.
- Kanturik eta egitten zan jolasteko?
- Maria: Ez kantuik ez. Bueno, esaten zan: "sake, pon, carne, culo".
- Eta sokasaltuan?
- Maria: Sokasaltuen kantuen baiño saltoka-ero; ero biña-biñakuek eitten soka bakarraz-eta.

11. Garizuma sasoiko jolasak

- **Erref:** ARE-010/015
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:24:05. **Bukatu:** 00:26:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:

Garizuman egiten zituzten jolasak. "Kinkiñuzka". Jolasen inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- Garizuman beste jolas bat itten zan, Garizuman. Holako taketa batzuk hartu eta kinkiñezka esaten jakona...
- Maria: Mazetie eta txirikilla.
- Bueno, hori joku bat da, eta nik esaten dotena beste bat, erremintta bardiñekin. Zurie da txirikillia, mazetia ta txirikillia. Eta nik esan bihar dot, kinkiñezka esaten gutsen.
- Maria: Puntie-eta lurrien sartu?
- Lurrian sartu, eta sartzeiaz bat bestie bota in bihe zan, bestela ez zara adelentetan.
- Orduan zela zan?
- Makilla bana hartu bixok eta bota, eta bestiek ha beriaz aber botaten dauen, ta noberena zutik itxi. Hori in bihe zan. Garizuman hori be itten zan. Eta Garizuman txirikilletioi zan mazetiaz. Txirikillioi zan holako luzera batekua, eta mazetia ba...
- Maria: Mazetia edo galderona esaten guntsan.
- Beste makilla bat?
- Maria: Bai, harekin jo ta botatzen zan, eta ipintten zien seiñaliek, bat, bi, hiru, lau...
- Apotxak esaten jakon hari.
- Maria: Puntuaziño bat eukitten eben, bat bostekue, bestie hamarrekue, eta hola. Eta txirikillie aidien doiela harrapatzen baeuen, hamarrekue izeten zan. Baiña begiondoko edarrak hartu be bai hareikin.
- Agustiñek begixe galdu euen, txirikilliaz begixa jota "para siempre".
- Jolas honetan denak egitten zenduen, neskak eta mutillak?
- Bai, bai, Garizuman danak.
- Eta zergatik Garizuman?
- Maria: Bueno ba holaxe zan. Orduen zela dantzaik eta ezebe zela ez euen. Hola gaztetxuek-eta ez bakarrik, haundixek be bai. Orduen Garizuman ez euen musika klaseik ezebe.
- Garizumatik aparte, udabarrixan edo, ez zan jolasten jolas hauetara?
- Maria: Ez. Garizuman bakarrik.

12. Umetako jolasak eta lanak

- **Erref:** ARE-010/016
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:28:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Umetako jolasak. Mutilen jolasak: txapetan... Jolasen inguruko azalpenak. Umetan baserrian lan asko egin behar izaten zen eta igandetan bakarrik izaten zuten denbora lagunekin jolasean egiteko. Umetako lanak: itulan egin, sutarako egurra ekarri...</p>

Transkripzioa

- Beste jolas bat mutikuetan-eta izeten zan txapetan: hormako harri baten jo txakur haundixa, eta kanpora botaten zan, eta bestiek be baitta. Eta holako zer baten barruen sartzan baeuen, irabazi eitten euen batek. Zela

esaten jakon horri? Txapetan. Txakur haundixe maillaz mailla eindde hormie joten erabiltten gittuen. Eta gero oiñao dokien-edo hori. Kalien be eitten da, oinddio aurten be eingo da zeozer.

- Maria: Mondrauen-eta dau afiziño hori.

- Orduen kategorixatxue izengo zan baiña, ogerleko zuri-zurixe, neuk be eskutan ibilitta dauket-eta, asko ez bada be, duruekin eitten zan. Bota distantzia batera, ifiñi puntu bat, hemetik bota eta hara zeñiek hurrago ifintten eban; edo blanko han eittia gatxa izeten zen baiña... Batzuk hobeto beste batzuk baiña. Hori be bastante eitten zan.

- Orduan baserrixetan lan asko, umetan be bai, baiña jolasteko denporia be izaten zenduen?

- Maria: Domekie, e, domekie bakarrik. Bestela, batian ittaurrien ein bihe zala, bestien su-egurre ekarri bihe zala, orduen ez euen txapaik.

- Orduan domekia izaten zan?

- Maria: Domekie jolasteko.

13. Mutilen denbora-pasak: txoritan edo errekan

- **Erref:** ARE-010/017
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:28:10. **Bukatu:** 00:31:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Hegaztiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Mutilen jolasak, denbora-pasak: txoritan, errekan arrantzan... Garai batean karramarroak ere egoten ziren. Ezkailoak. Nola arrantzatzen zuten. Txorikumeak nola harrapatzen zituzten. Txori klaseak; izenak. Koruetako erreka.</p>

Transkripzioa

- Mutillak-eta, basora joan eta txorittan ein-edo?

- Maria: Txori-apixetan, bai, neskak ez, baiña.

- Edo erreka joan-eta?

- Bai, zeoze ibilitta nao ni hor, Urkuluko errekan-ta, oin ez dau baiña.

- Maria: Kangrejuek harrapetan.

- Kangrejuek sarrixan batute daukat. Baiña hortik doie ba... Koruetako zikiñek be hortik doiez ta horrek desaparezidu die. Lehen be gutxi euen, e. Koruetako zikiñek orduen ez zien etorten, baiña... Errekie siketu eitten da bai, siketu eitten da.

- Maria: Nik entzunde dauket eskailluek eta harrapetan ziela.

- Bai, bai. Txikitxuek izeten die. Neuk be batzun batzuk harrapaute daukat. Baiña siketu eitten da, eta siketu ezkerro peskie galdu eitten da.

- Eta zela eitten zenduen peskan, eskuekin edo saria erabiltzen zenduen?

- Ez. Sarie sartzeko besteko potzue ez igual.

- Maria: Botillia. Botillia ipinitta-ta.

- Botillia? Ez dait. Neuk peskan asko ez dot ein. Gurian ibilli die basomutill, basora lanien etorri Santander aldekuak-eta. Horreik bai, horreik espliketan dotsue peska asuntua. Han iñola be erreka hobaak ezen, eta... Hemen faten zien Urkulura ta harrapau be eitten zittuen. Potzuei igarri eitten utsie gutxi gorabehera nun dauen zerbait. Guk ez hainbeste.

- Eta txori-apixetan egiten zenduen?

- Txori-apixetan bai, ene... Hor ibiltzen gitzen. Txori-apixetan, e, txorixai ikesi ezker bati ha ixilik euki biher izeten zan, ha bestiek harrapau ez deixen. Gero txorikumak itten zittuen eta haik hartu eta jan, txorikumak.

- Etxian?

- Etxien, etxien. Han etxien be ez zan oillo asko-asko jango.

- Maria: Orduan txorikumak gozuak, gaiñera...

- Bai, bai. Txorixa ikesi, zainddu beste iñok jakin ez deixen, eta gero apur bat lumaketan dienien hartu eta jan.

- Eta ze txori izeten zien orduan?

- Negutia-ta, jilgerue igual-ta, zozue eta bidigarrue-ta; okille, oin ixa gastau da, arboliei zulue eitten dutso, hareik be bai, harek be behin edo behin harrapaute dauku. Ta holaxe, eta honek eskillarasuek eta be baeren zeozer. Txori klase asko.

- Eta errekoa esaten dozu ez zala oso aberatsa? Sikatu eitten zala eta arrain asko ez ebalu eukitzen?

- Ez, ez. Hau siketu eitten zan. Koruetakue ez. Koruetakuen beti egoten zan zeozer. Urbaltza, Urbaltza da Koruetako errekie, Urkuluko manantial printzipala.

14. Txori-klaseak: batzuk ugaritu egin dira; beste batzuk urritu

- **Erref:** ARE-010/018
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:31:50. **Bukatu:** 00:35:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Natura » Fauna
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:

Txori asko etxe inguruan. Eleiz-txoriak asko ugaritu dira. Hegazti klase asko presa inguruan; gaur egun txori desberdinak ikusten dira. Kukuaren inguruko esaera desberdinak.

Transkripzioa

- Errekia ez, baiña esaten dozu basua aberatsa zala. Txori klase asko?

- Bai, bai.

- Eta zela ikusten dozue, batzuk galdu egin dirala?

- Maria: Txori klase asko gure etxe inguruan. Baiña bandarak, e. Eta zegatik? Ganau pentsuek dabiz, bai. Hola illunkera aldian bueltatxo bat ittera fan bai, eta txio-txio-txio, bandarak. Hola txalo bat edo bi jo ta urteten dabe bandarak.

- Zer da, txori klase bardiña?

- Horreik bai, horrek esaten dauena bai. Elex-txorixak edo esaten jakuen. Eleixetan edo teillatuetan dittue afixak.

- Maria: Ugarrittuta dago hori. Eta nik pentsetan dot igarri eitten debela eskupetaik ez dagon etxie, e. Ze horreik tiro baten bota leikez, e, ehun iguel.

- Esaten dauela batzun batzuk igual... Harrapetako badago sisteman bat. Jana ifiñi faten dien lekuen, da saran bat, hor badao sisteman bat. Kasik ikusi be eitten ez dana. Eta ha joten dauenien burua pasetan daue eta atzera ezin urten. Han zulotxotik, eta orduen dago peskioi, fan eta ra! Ra! Ra! Eta ixten bozu sarie han, katuek be bai, eta jentiek be bai. Baiña ez,

hori esan eitten daue, neuk ez dot ikusi.

- Maria: Oin berriz hemen presatik paittie-eta asko dabil.
- Oin bai. Oin bestelakue, txori-klasie, kanbixaute dao.
- Maria: Gure semiek botaten dauenien zelaixetan satsa edo puriñe edo esatekue, atzetik horrek paittok bandaran etorten die. Eta belaak be bai.
- Belaak, buff, zenbat bela.
- Eta esan dozu okilla erdi desagertuta daguela?
- Bai, bai.
- Eta zu umia ziñanian asko ikusten zenduen?
- Bai, hartzen zittuen. Okillak e...
- Maria: Okillak dezente lehenao, oin ez dakit nik.
- Kukue ezta, e, txantxangorrixen afixan arrautzie...
- Maria: Kukuek edozein lekutan. Berak ez dittu ataraten, baiña beste batzui afixan bere arrautzak ixten dutse.
- Nagi arraixue!
- Kukua be ugarixa izaten da?
- Ez hori be lehenau gehixao entzuten zan.
- Maria: Bueno, oin be kukue entzuten da datorrenien, oindio ez jaku etorri.
- Esaeraren bat badago, kukua entzuten danian?
- Bai. Noiz da hori Erromako...
- Maria: Poltsikuen dirua. Erramue eta Erromako zubixa, esaeria. Kukue Erremu Egunien Erromako zubixen pasatzen zala.
- Pasau eitten ei euen. Nundik etorten ete zan?
- Maria: Hori esaeria izengo zan. Eta gero ba honutz etortzen zan, itxuria.
- Baiña Santixautarako ixildu eitten da. Eta da txori...
- Maria: "Gagarrillian mutu", esaten dabe-ta. Garagarrilla berriz "julio".
- Juliuen kantuen ittiari ixten utsa.

15. Natura; arrano eta putreak

- **Erref:** ARE-010/019
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:35:10. **Bukatu:** 00:37:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Natura » Fauna

Laburpena:

Txori-klasea aldatuta dago. Lehen ikusten ziren txori asko gutxitu egin dira; beste batzuk berriz ugaritu egin dira. Arranoak; putreak, eta abar.

Transkripzioa

- Lehen esan dozu txori klasia aldatuta dauala?
- Maria: Bai, lehen txantxangorrixa-ta lehenao gehixao pentsetan dot zala.
- Bai, txori klase bat dao, lehena txikixak asko zien baiña hareik kastau ein dia, baiña puxkat haunditxuaua, zozuen tamaiñu ingurukua ugerittu ein da.
- Maria: Txepetxa eta txantxangorrixa-ta eta horreik txikitxuok.
- Bateon bat ikusten dot...
- Maria: Horrek gutxittu ein diela pentsetan dot.
- Bai, gure ittoe inguruen bateon bat ikusi dot nik joan dan neguen be, baiña ez, e...
- Eta bestela txori haundixak, horrek arranuak edo?
- Horrek belak eta horrek?
- Maria: Arranuek be, lehen ganau bat akabatzen zan, ba, zelai ezkiñan-edo

itxi eitten zan, ezta. Eta horra arranuek etorten zien, e, bandarie igual. Oin berriz ganau bat akabatzen da, eta zuk abixua emun biher dozu /bihozu/, eta eruen eitten dotsue. Zeuk pagau biher dozu /bihozu/, e, baiña eruen eitten dabe. Horrek arranua asko gutxittu, gutxitxuau... pentsatzen dot ein dabela. Oin be ardi banakan batzuk mendixen akabetan dienak...

- Horrek jango dittue, klaro.

- Maria: Eta gero Bitorixako parke haundixetara-ta lehen ganau akabauok apropos horreinddako eruen eitten zittuen. Oin ez dakit erueten dotsen janoi, horrek be zeozetarako...

- Putriendako?

- Maria: Zeozetarako. Bizi biheko daue horrek be! Baiña horrek die terribliek, terribliek, e! Puff! Iez edo noiz zan? Baiña bandarie geratuta, e. Eta horrek behetik gora-ta ezin dabe hegan ein, alturatxua bihe daue hegaz ... hasteko.

- Alturatxura faten die, e, tauka!, tauka!, tauka! Aldiko salto bat, tauka!, heguek narras dittuela. Alturatxure ailegatzen danien jarten da behera begire ta, laaa! Hartzen dau buelua.

- Maria: Horreik be ba lehen ganaue hola ixten zanien... oin ganau dana jaixotzen danetik daukozu apuntaute.

- Oin identifikaziño haundixe dauko.

- M: Akabatzen danien zuk derrior parte emun bihozu. Ha numerue daukena ba akabau ein dala-edo, etorten die eta erueten daue. Hori be alde batera ona da, garbittasune.

- Bai, bai.

16. Lehenago lursail gehienak soroak ziren; basoak aldatu egin dira

- **Erref:** ARE-010/020
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:37:55. **Bukatu:** 00:40:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Auzoaren inguruko kontuak. Basoak; soroak. Zelai gutxi zeuden lehenago; gehienak soroak izaten ziren: artoa, garia, arbia eta baba ereiten ziren, besteak beste. Basotik ira ekartzen zuten: noiz eta nola batzen zuten. Orbela ere ekartzen zen basotik. Aginaga (Bergara) inguruko basoak. Orokorrean basoak asko aldatu dira; orain gehienak pinudiak dira.</p>

Transkripzioa

- Basuak-eta, hemen zelaixak beti zelai izan dira?

- Lehenau garixe eta artue-eta erein ein biher zan eta labrau eitten zien. Dana labraua zan, bai. Dana ez esateagatik, zeozer ez, baiña onena bai. Hau gure errekie dagon lekue-ta sekula ez zan zelai izengo, beti labrauta zeozer: garixa, hartue, arbixa, babie... Enfin, biher zana.

- Labraua zati gehixena, eta basuak urrintxo geratzen zien?

- Maria: Basuek aparte dauz.

- Basuen eitten zan idie. Ganauen azpizak eitteko hori derrior biher zan. Udazkenien hori lan bat izeten zan formala. Idaak ekarri, bere sasoi en heltzen die, septienbrien azken inguruen, eta ekarri. Eta oin orbela be

egoten da udazkenien jausitta leku batzuetan, oindio ida barrixak urten barik...

- Maria: Idie gastaute eta orbela ekarri.

- Hori eindde nau neu be.

- Maria: Hemen basuek bastante urrin jausten jakuz. "En cambio" neure... Gontzarrin, ni bizi nintzen lekuen han hurrien geunkazen basuek eta dana.

- Horrek etxe onduen.

- Bentajia, ez?

- M: Bueno! Ide sailla garbi-garbi. Zelaixen moduen ide sailla. Oin danak piñu sartute daz, baiña orduen...

- Eta hor Gontzarri inguruan basuak zer izeten zien, pagadixak?

- M: Pagadixek asko.

- Baiña oin gutxiago egongo da, ezta?

- M: Hango piñuek ba ointxe berrogeta hamar urtetik honuzkuek. Baiña horrek ide saillok garbi-garbixek zienak ba danak piñu daz. Idie ze garrantzitsua zan, garbi zela eukitzen zien. Harek ba azpixon eitteko-ta. Oin gauzak ganbixau die, ta oin, e, dana piñua.

17. Garai bateko basoak nolakoak ziren; belar-klaseak eta hauen inguruko azalpenak

- **Erref:** ARE-010/021
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 00:40:35. **Bukatu:** 00:45:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Basoak nolakoak: gaztainadi handiak; haritza. Haritz-motza. Belarra ere segarekin ebagi eta baserrira eramaten zuten. Albitza. Belarra noiz ebagi behar den. Pagatxa erein egiten zen; hazia ere batzen zitzaion. Belar-beltza (sekula-belarra), igitaiarekin moztzen zen. "Idaurre".

Transkripzioa

- Eta hemen inguruan zer izaten zan? Pagadixak izeten zien?

- Hemen? Gaztaiñie. Hemen piñu... dana gaztaiñie. Eta aretxa. Aretxa zakarra, gaiñera, halako... Aretx motza, aretx motza da, tantai itten ez jako ixten. Ebai ha egurra, sutarako...

- M: Baiña hemen gaztaiña asko, itxuria. Baiña Gontzarrin gaztaiña ez...

- Eta hola bedarra, klarue euen lekuen, bedarra segiaz ebagi eta ekarri etxera sikatute, e. Hori be sarri ein dot. Hor mendire fan segie bixkarrien hartute, oiñez, ebai bedarra, eta denporia ona eitten baeuen, laster igerketan zan, baiña bestela, bueno! Gaixki ibiltten zan.

- Eta gero zer eitten zenduan, burdixakin ekarri?

- Bai, burdixakin. Eta udazkenien, hau parajiau aiñube antzekue da, eta hor mendixen nekez igertzen zan. Ekarri hona ta larriñien zabaldu eta gero kamarara sartu. Ez euen harek be esne asko eukiko, baiña... Enfin.

- Bedarra esaten dozu basuan. Baiña gero zeuek ereitten zenduen bedarra?

- Maria: Keba. Berez urteten dau.

- Berez urteten dau. Albitze jeneralien. Basuen be badau bedar fiña. Mendi ostien "por ejemplo" bedar fiñe dau. Ardixek motz-motz eitten dauen

lekuen fiñe, bai, hareik haundi eitten ez dutse ixten. Hareik ez dutse ixten, klaro, ardixe gaiñien dago-ta.

- Orduan albitza?

- Albitza da graminea bat. Leguminosa esaten dutsie honei, e, txidarra-ta. Garixen tipue dauko. Bedar bastuena esaten dabe baiña. Bere sasoian ebai ezkerro danak bardiñek ei die. Hantxe bere sasoie hartu biher, berde-berde bururutze datorrenien, orduentxe; ez e burue urten eta han siketutekuen ia... puxkat pasaute.

- Eta bestela pagotxa edo?

- Pagotxia bai. Hori be zan forraje bat erein eitten zana.

- Baiña zeuek ez zenduen ereitten?

- Bai, eta hazixa hartu be bai.

- Maria: Pagatxie zan ona esnie emuteko.

- Pagatxia eta bedar baltza.

- Maria: Hazixa ataratzen, Mondragora ferixara fanda ibilitta gaz.

- Bedar baltza?

- Maria: Sekula bedarra. Hemen bedar baltza esaten jakon, guk sekula bedarra esaten guntsan.

- Bedar baltza ebai orduan igeteixaz eitten zan asko. Nik segiaz be ebaitte daukat, nire aittajaunek igeteixaz ebaitten euen. Eta Zuazubixkarreko Benitto egon ei zan gurien kriaau, eta gure aittajaunek erakutsi ei eutsen ipurdittik baiño apurtxo bat goragotik ebaten, hurrengoko kortie etorten ei da asko hobeto. Gure aittajaunen kontsejue kriauei emuteko.

- Orduan erein egiten ziren bedar baltza eta pagatxia?

- Pagatxie ez dau brotetan. Behin ebai ezkerro fuera, e. Han artue erain bihe da berriro.

- Maria: Korte bat bakarrik. Baiña bedar baltzak badauko kortie.

- Bedar baltzari etorten jako hiru korte, lau, segun zelakuak.

- Maria: Itxi buruketan, orduen lorie ebai eta hazixa.

- Eta hazixari zeozer eitten jakon?

- Maria: Gorde, siketu, zakutan sartu eta gero biher zanien hantxe egoten zan.

- Ha bere forrajaz egoten zan. Eta jo bihar dozu /bihozu/, idaegurre esaten jakon. Jo bedarran moduen... eta hazixe geraketan zan.

- Idaegurre zer da?

- Idaegurrek die bi makilla...

- Maria: Hortxe eskapeien esegitta dau.

- Esegitte bistan dau.

- Maria: Bi makilla, narru bategaz, holaxe zertuta, harek jiran buelta ein deixela. Koltxoiek eta be hola joten zien.

- Eta horrek dauka izena?

- Idaegurre.

18. Belar-ondoa eta haziak

- **Erref:** ARE-010/022
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:45:25. **Bukatu:** 00:47:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Pagatxaren eta belar-beltzaren haziak saldu egiten ziren. Pagatxaren haziak eskuz batzen zen. Igitaia eta sega.</p>

Transkripzioa

- Eta haziak esaten dozue estimaua zala?
- Bai.
- Maria: Eta pagatxian haziak eskuz batzen giñuen.
- Bai, hori be eitten geuen. Ha karua izeten zan, karutxuaua.
- M: Heldu-heldu eindda euenien, eskuaz tarras!, tarras! batzen zan.
- Harekin kilue eitten be ez zan samurre izeten.
- M: Baina hazi puruaue zan bedar latzana baiño. Ha pagatxia jeneralmente etxerako lain batzen zan. Bedar baltza ez.
- Eta klaro, han tartien beste bedar klase batzuk be egoten zien. Eta idaegurrez jota dana batzen da, baiña eskuz ona bakarrik batzen da.
- Garixa zela moztan da?
- Garixa igeteixekin. Azkenerako segiaz be bai baiña, baiña segiaz hasi zanerako hasi zien makiñek zela-halakuek ganauekin, ganauekin ibilttekuak. Eta gero garixa ereittiari itxi.
- M: Gure gazte-denpora guztie, eta gero be bai, ni hona etorri ta gero be, igeteixekin ebaten zan.
- Garixa inportantia zan, eta orduan igeteixekin?
- Bai, honbre!
- Eta osteria bedarra eta garua?
- Bedarra segiaz.
- M: Idie igeteixaz be bai. Segun ze sail. Sail onian segiaz ondo. Baiña han [...] igeteixaz. Hemen batzuk, harutzatxuao beste batzuk. Ez euelako..., illarie be bai, eta ez euelako saillien ebateik.
- Honek han ide-leku onak eukien. Guk hemen urrin, otak-eta... "En fin".
- M: Holakoxe bizimodutik pasaute gaz.

19. Igitaia eta baserriko tresnak. Errementari eta perratzaileak

- **Erref:** ARE-010/024
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:50:15. **Bukatu:** 00:54:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Igitai-klase desberdinak. Hagindunak, garia ebateko. Hagin gabekoak, arbia zatitzeko. Baserriko tresnak Aretxabaletako errementariak egiten zituen. Errementariaren lanaren inguruko azalpenak: burdien gurrupilak; baserriko tresnak; abereak perratu, etab. egiten zituen. Arrasateko errementaria ere oso ezaguna zen. Perratzaileen lana egun ia guztiz desagertu da.

Transkripzioa

- Orduan igetei klase diferentia zeren?
- Maria: Bai, agindunak eta agin bakuak. Garixa ebateko-ta bihe zien agindunak. Eta arbixe zatiketako ganauei, agin bakuak.

- Igetei ojia.
 - Zelan?
 - Maria: Agiñik ez eukena.
 - Igeteixak non erosten zian, zeñek egitten zittuen erreminttak?
 - Errementarixek Atxabaletan. Mondrauen hil da Mentu...
 - M: Ointxe hil da Mentu.
 - Ene, zenbat ein ete euen. Hemen errementarixek eitten zittuen. Eta burdixak be, burdi-txirrinkak be, oin gomazkuak die.
 - M: Azkenien gomazkuek zien, oin haretxeik be ez. Baiña azkenien zien burdi-txirrinkak, hola mehiek, burdiña aro bat eta egurre barruan, hor gure eskapeian daz lehengo burdi-txirrinkak.
 - Eta errementarixa zer?
 - Errementarixe? Burdiñie manejetan euen, eitten euen sue, prasatxo hola hauspo zerATEGAZ, han berotu, emuten utsen, berak gura zittuen figurak-eta, haxe ofiziue daukan gizona da errementarixa.
 - M: Atxabaletan be bai, Baiña Mondrauen famosua.
 - Atxabaletan euen, Lutxin tabernia egon zan hurrengo atie, bigarren atie. Ganauek perrau-eta, perrak eiñ, eta perrak eittie be...
 - Ganauren bat perrau biher ziñuenian, hara eruen bihar?
 - Harek euken ganauek altzetako katxarrue, guk oin etxien dauku geuk be, eta beste batzuk be bai, baiña, oin hori kastau zan kalia, baiña orduan hantxe euan.
 - Maria: Hemen ezta behirik-eta.
 - Orduan basuen euen zeozer.
 - Maria: Probatara-ta dabitzenak-ero.
 - Horretxek. Horrek perratokixa seguramente etxien dauke, seguru.
 - M: Edozeiñek eztaki perretan.
 - Probarixak jakingo daue.
 - M: Eztot pentsetan. Horrek errementariren bat eukiko daue.
 - Orduan erreminttak-eta eroatera errementarixana jotzen ziñuen? Konpontzera be bai? Gauza batzuk etxian konponduko zenduezen.
 - Bai, eztauke horreik, aberixa gutxi daukie. Amotzak darenien zorroztu.
 - Eta atxurran kertena edo?
 - Horrek etxien ein biher.
 - M: Eta atxurrak eta gauzak Patrizio Etxeberriai.
 - Hari erosi. Eta noizbaitten errementarixek zorroztu be bai. Lehenago burdiñare-hortzak be, burdiñarie zan erremintta bat solue labretakue, hareik be apur bat zorroztu ein bihe zien. Are-hortzak be bai. Ermentarixek itten utsen burdiña-hortza berotu, burdiña-hortza porejenplo eta ha hankatxue mailluaz da!, da!, ha zabal-zabal ifiñi puntie, hobeto labrau deixen, bedarrak hobeto aztertu daixen-ero. Enfin, lehenagoko adelantuok...

20. Perratzaileen lana; Angiozarko perratzailea

- **Erref:** ARE-010/025
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:54:00. **Bukatu:** 00:55:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Perratzaileen lanaren inguruko azalpenak. Angiozarko perratzaileak, dultzaina jotzen zuen eta Arrasatera ere joaten zen San Juanetan jaiak alaitzera.

Transkripzioa

- Perratziak sekreturen bat dauka?
- M: Jakin in bihar dozu ultzie nundik sartu biher jakon.
- Perratzaile batetik bestera diferentzia euan?
- M: Bat euan eta haraxe fan bihar.
- Banakatxuei pasauko jakuen deskuiduak. Pasetan jakuen.
- M: Angiozarren bazan perratzaillie, eta dultzaiñerue zan gaiñera, dultzaiñie joten ibiltzen zan jaixetan-eta, Joxe Martin.
- Dultzaiñerua?
- Dultzaiñie joten eban Mondrauen San Juanetan-eta.
- M: Orduen ez euen bandaik ekarteik iñundik.
- M: Baiña harek nunbaitten ikessitte euken dultzaiñie joten.
- Orduan perratokixa zentruan?
- Oingo zentro-zentruen. Lehenao horrek inguruok danak solo zien lehenao.
- M: Lehen hemen Atxabaletan kale bat zan bakarrik.
- Oin zentro-zentruan izengo zan, baiña ein zanien ez.

21. Herria eta gizartearen aldaketa azkenengo hamarkadetan: industria, etxebizitzak, emakumea etxetik kanpo lanean

- **Erref:** ARE-010/026
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:55:15. **Bukatu:** 00:58:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>Herria zeharo aldatu da. Kanpotik noiz hasi zen jendea etortzen. Lantegiak asko handitu dira; berriak ere sortu, e.a. Emakumea noiz hasi zen lantegietan lanean; gehienbat gerraosteko kontua izan da. Erdararen indarra. Duela urte batzuk inguruko herrietatik ere jendea Aretxabaletara etortzen zen bizi izatera; etxeak merketxoago zeudela edo esaten omen zen.</p>

Transkripzioa

- Orduan Atxabaleta herrixa asko aldatu da?
- Bueno! Ideiaik be ez, ein daben bueltia. Eta aldatzen. Eta edarto doia. Kaliek Atxabaletan bastante formalizau die. Hemen Basabetik Mendiolako kamiñoraino zuzen-zuzen alde bixetara fabrikak, eta etxiek be ein dittue barrixak. Ein da eitten.
- Eta noiz igarri zan kanpotik jente asko etorri zala?
- Gerra ostian laster. Lehenao andraik etzan fabrikara faten, uste dot bapez. Eta hasi zan, e, kastillanuek fabrikara faten ziela, nunbaittetik etorriko zien eta.
- Maria: Lehenau Mondrauen-eta faten zien, e. Banakan bat, baiña bai. Baiña gerraosteko kontuek die horrek.

- Oin berriz esaiozu fabrikara ez fateko. Bueno! Fabrikara edo holako beste puesto bat hartzera. Baiña lehenao, klaro horrek puestuok ez ezen.

- Maria: Lehen behin ezkondu ezkeru etxien. Umiek hazi eta etxien andrie.

- Hori desagarezidu da.

- Orduan Atxabaleta hazi zan gerria ezkeru?

- M: Ni etorri ezkeru. Berrogeta hamar urte.

- Zuk ezagutu zenduan txiki-txikixa?

- Maria: Bai, eta oin kanbixau da. Erdera asko. Oin be erdeldun jente asko bizi da. Baiña umiek ikastolara doiakixuez, eta umiek behintzet euskeraz-eta. Atxabaletan Mondrauen-ta baiño pisuek merketxuago egon die lehen; oin uste dot bardinduta daezela, baiña gazte asko.

22. Antzinako txanponak

- **Erref:** ARE-011/005
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:02:05. **Bukatu:** 00:03:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Ezagutu dituzten txanponak.

Transkripzioa

-Zuk errialak esan dozu oiñ. Ze diru-klase ezautu dozuez?

-Emaztea: Erriela be bai, peze..., txakur haundixe.

-Ze da, zentimua?

-Zentimo bikue nik ikusi eiñ dot, zentimo bikue ikusitte daukat nik. Zentimo bikue moneda bat zan.

-Emaztea: Txakur txikixa bost zentimo. Kobrezkuak zien horrek. Horrek zien gerra aurrekuak. Gero gerra ondorian horrek aluminozko txapatxuok. Erriel bikue eta txakur txikixa be bai.

-Errial bikue zidarra zan. Erriela zan nikel...

-Emaztea: Bai gerra aurretik, baiña ostien ez, aitta, ostien aluminiozkuak zien. Eta gero handik rubixetara pasau zan.

-Eta orduan gerra aurrekuak zidarrezkuak zien?

-Bai, bai. Pezeta bikue, pezetie, durue, hogerekuak. Hogerekuak da hogei erriel.

-Emaztea: Txakur txikixa ta horrek kobrezkuak.

-Eta aurretik egongo zien beste diru...

-Emaztea: Besten batzuk egongo zien. Guk horretzek ezautu dittuu.

-Guk eztou ezautu. Hola lurrien topauta edo holako zeren batzuk, baiña ez dakit nunguek izango zien be ta.

-Urrezko txanponik eta?

-Urrezko txanponik ez. Por suerte...

-Emaztea: Bueno, urrezkuek daukadaz nik batek erregalauta hamahiru urrezko txikitxo. Seme-alabak danak guriak harekin diruakin ezkondu die.

23. Abadearekin harremana

- **Erref:** ARE-011/011
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:09:05. **Bukatu:** 00:10:55

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Abadearekin baserritarrek izaten zuten harremana nolakoa zen.

Transkripzioa

-Lehenago gerra aurretik esan dozue abadia-eta auzo bakoitzian bana zeuala, abadetxia be egongo zan, eta abadiakin relaziñua zelakua izaten zan ba? Errespetu haundixa eukiko zontsen.

-Baiña hemengo abadia ez zan /etzan/ izen gosia bapez.

-Emaztea: Esan gura dot hola..., hemen beste auzo batzutakuak esaten daue ba bueno!, abadiak, e, Kontzeziño egunien oillandia, Pazkua Egunien ez dakit zer eruen bihar, gero ez dakit zenbat arrautza, eta beti eskien.

-Beti zeoze abadiak erueten.

-Emaztea: Baiña hau ez, hemengue ez.

-Garixe danok hartzen auen, garixe. Baiña hamenguek...

-Emaztea: Etxien be falta eitten auela eta.

-Eta ifiñi auen dirue zeozar. Zeoze emun eta se acabó la... Eta beste auzo danak segidu euen lehengo...

-Emaztea: Lehengo ohitturan, bai.

-Kostunbria.

-Hor sentiduen hemen egon zana konsideraue edo.

-Bera bertakua zan?

-Elgoibartarra zan.

-Emaztea: Hantxe hil zan, lobaakin hil zan, eta gu fan giñen bi-hiru bider bisittetan be. Baiña hor sentiduen izen zan oso moderaue. Beste batzuk esaten daue, buenooo! ... oillandie hazi bihar, bestien arrautzak, bestien ez dakit zer.

-Noberandako falta eta.

-Urtian ez dakit zenbat egun holako jeneruak zertzeko.

24. Berorika nori egiten zitzaion

- **Erref:** ARE-011/012
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:10:55. **Bukatu:** 00:11:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:

<p>Abade, mediku, albaitariari, e.a. berorika egiten zitzaien.</p>

Transkripzioa

-Abadiari errespetua eta. Berorika eitten jakon?

-Bai, bai, hori bai. "Ave Maria Purisima!! txapela erantzi ta. Bai.

-Emaztea: Berori bai, berori medikuai be bai.

-Hori bai, e.
-Emaztea: Betenaixuai be bai. Medikua etortzen zanian arrautzak emun bihar otsazun.
-Eta maistriai be bai.
-Emaztea: Arrautzak emun bihar otsazun, beteinaxuai lo mismo.
-Pagatziaz aparte?
-Emaztea: Aparte.
-Bueno, arrautzak emutia obligaziñua ez zan /etzan/ izengo.
-Emaztea: Zu, ez zan /etzan/ obligaziñua baiña beti emuten jaten.
-Eta harek eruan. Je-je-je.
-Ez zeban ezetzik esaten...

25. Ohitura zaharrak

- **Erref:** ARE-011/014
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:12:40. **Bukatu:** 00:16:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>Pazkoko txartela. Ohitura zaharrak. Soroetako bedekazioa. Trumoa zetorreanean ere bedekazioa egiten zen. Su bedekatuua. Angiozarko ohitura zaharra. Ur bedekatuua.</p>

Transkripzioa

-Lehen esan dozu abadiak emun bihar jakozela oilandak eta hainbat gauza. Bedekaziñuak eta egiten zittuan?
-Emaztea: Baita. Bai.
-Lehenau konfesau ein bihar zan eta Pazkuetan txartela hartu bihar zan.
-Emaztea: ; Paskuazkue egin dozule agirixa.
-Demostretako.
-Emaztea: Orduan dotriña preguntatzen eban, itxuria, batzui, neuri sekula ez doste eiñ baiña.
-Niri bai. Eta ya bale danien ba emuten daue ba txarteloi, autorizaziñuoi komuniue eiñ dan moduen. Edo eitteko zera da. Komuniuan kanbixau itten da, bat itxi ta beste bat hartu. Eta gero ba Pazkue..., handik ez dakit zenbat denporara horrek errekogiruten etorten zan abaria monagilluaz, nik monagilluaz daukat ikusitta etxeik etxe.
-Emaztea: Konjurua eitten.
-Konjurue hola bedekaziñue terrenuei ta botatzen utsen eta zeozer emuten jakon.
-Emaztea: Arrautzak edo zeozer emuten jakon.
-Hori neuk ikusittakua da. Oiñ horreik danok...
-Emaztea: Gero hodeixe euanien, ezta, orduen abadien elixpera urteten eban eta elixpien eitten euen konjurua. Hodeixe edo trunboi zatarrak eta gauzak. Hori beti.
-Bedekaziñuak, konjurua, hori noiz izaten zan?
-Emaztea: Ba ointxe, ointxe udabarrixen.
-Hemetik eta..., bai, bai, garixek heldu arte.
-Emaztea: Su bedekatuue gaiñera partitzen zan orduan.
-Hori zer izaten zan, Santa Kurutz egunian edo?
-Emaztea: Ez, ez. Itxoin, Pazkuetan ur bedekatuua ta eitten daue, ezta. Eta

orduan eitten zan su bat. Eta handik sue...

-Erreten die erramu zarrak eta...

-Emaztea: Bai, fago-illdue edo. Hemen ez dot ikusi baiña Angiozarren bai. Fagoilldue edo, han sue hartzen zan, eta etxerik etxe halako... monagilluek edo ibiltten zien ha su bedeinkatue partiduten.

-Kalteik eñ ezteixen.

-Monagilluek?

-Bai, akolittuek.

-Auzoko umiak ez?

-Ez, kalien eozenak.

-Eta ur bedeinkatua be partidu eitten zan?

-Emaztea: Baitta. Ur bedeinkatua ointxe be badao ohitturie, e. Hor bedeinkaketan danian nik eta etxeko danak, beste batzuk be, botilatxo baten ekartzen da ur bedeinkatua etxera.

-Eta gero zer eitten dozue?

-Ba zeozer premiñie dauenien edo ganauetan edo bota ta. Eta kurtzak bedeinketan die.

-Emaztea: Su bedeinkatua ta ur bedeinkatua hori izaten zan Pazkuetan. Eta horrek konjuruok eta gauzok be orduantxe, Pazkua ostian.

26. Bedeinkazioak; ohitura zaharrak

- **Erref:** ARE-011/015
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:16:00. **Bukatu:** 00:17:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

Gurutzeen bedeinkazioa. Ohitura zaharrak. San Juan eguneko ohitura zaharrak.

Transkripzioa

-Eta gero kurutzak eta (bedeinkatu)?

-Erramu Egunian.

-Hemen ohitturia izaten zan kurutzena?

-Bai. Eta dago ondio, ondio segiduten dau, aurten be fango die.

-Solo guztietan ipintzen zan?

-Bai, soluan sartu makillok.

-Atian?

-Emaztea: Atian edo, bai, edozein lekutan.

-Bai, Sain Joanetan be lorak ifintten die ate mark..., aldamenien.

-Emaztea: San Juan egunien botaten da idie hor eskapien hola lurrien larrosa-orri batzuketan eta ateburuen elorrrarantzie beste larrosa ostro bategaz.

-Horio ondio be efintten da.

-Emaztea: Hori San Juan egunien.

-Ondio be ifintten da leku batzuetan, ia... Baiña hementxe be ifintten da, geuk be ifiñiko dou aurten be.

-Hori Atxabaletako ohitturia be bada?

-Bai, bai, bai.

-Eta zeuk Angiozarren ezagutu zenduan berdiña?

-Ba antzerakua.
-Larrosa...
-Emaztea: Bai, hori idioi beti botatzen da.
-Larrosa petaluak.
-Emaztea: Ointxe ez dakit botatzen dauen baiña ni han bizi izan naizen artien bai behintzet.

27. San Juan eguneko ospakizunak

- **Erref:** ARE-011/016
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:17:20. **Bukatu:** 00:19:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>San Juan sua etxe guztietan egiten zen. Kanta zaharra. San Juan "sortie".</p>

Transkripzioa

-San Juanetan gaiñera sua egingo zan?
-Hori da, san juan sua, bueno!, hori urtero. Hemen be etxe gehixenetan eitten da. Etxe bakotxien.
-Eta ohitturarik egoten zan, ez dakit, kanturen bat?
-Emaztea: Bai: "San Juan dala/ San Juan dala/ Porta Letaiña goxien/ hamalau atso/ hamalau atso/ tronpeta jotzen/ zazpi astoren gaiñien". Beste hamalau/ beste hamalau/ asto bateren (?) gaiñien". "Garixek eta artuek gorde/ zapuak eta subak erre/ biba-biba San Juan berde!". Hori kantatzen da. Ointxe be bai gure umiak eta hori kantatzen dabe.
-Hori suan inguruan kantatzen da edo?
-Suan inguruan.
-Orduan ohittura batzuk oindiokan mantentzen dia.
-Oindio bai, bai. Geu alegintzen ga mantentzen eta geure semia be bastante... Horrek tradiziñuok gordetzen badaukou ohittura puxkat. Eta gero San Juan sortie bedeinkatzen da elixan. Lora sortie.
-Ipintzen dana ate onduan?
-Emaztea: Ez. Aparte eitten da beste sorta bat elixara erueteko. Han bedeinkaketan da eta hori urte guztien daukozu kamaran.
-lezkue oiñ erre eitten da.
-Emaztea: Bai, iezko sortie oiñ san juan sue eitten danien erreko da, ezta? Eta berriz ointxe, geuk ez dogu eitten hori, baiña palan hartzen zan prasa pixkat, su pixkat, eta hola hodeixa eta txarra euanien, handik bedar batzuk ipini ta ataratzen zan kanpora.
-Zelako ohitturak.
-Emaztea: Hori ohitturioi ba beti. Ta ointxe hemen ez dot ikusi hori ohitturioi baiña Gontzarrin hori beti, beti.
-Oiñ gauza barrixak bihar diela, baiña gauza batzuk ez litzakez /elitzakez/ kendu biher baiña.

28. Eguraldiaren inguruko sinesmenak; ohitura zaharrak

- **Erref:** ARE-011/017
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:19:30. **Bukatu:** 00:21:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Natura » Meteorologia
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Trumoia zetorreanean, abadeak konjurua egiten zuen elizpean eta kanpaiak ere jotzen ziren. Euria egiteko errogatibak. Ohitura zaharrak. Letaniak.

Transkripzioa

-Hemen hodia edo trumoia zetorrenian eitten zan holako...
-Datorrenian? Kanpaie be joten zan. Don! Hil-kanpaien morukue edo iguel-iguela ez baiña antzerakue apur bat.
-Orduen eitten eban abadiak konjurua elixpeian.
-Eta hori izaten zan kanpaia jentiari abixatzeko?
-Bai, bai, ia ba konjurue dauela auzon baten edo hodeixe edo ikusten zan eta.
-Gero errezuren eitten euen eta ia está.
-Eta kontrara be eitten zan? Sikutia zeuanian eurixa eitteko errogatibak edo?
-Errogatibak bai. Honbre! Errogatibak sarri.
-Oñ edozer gauza esan be eitten da ta, buenoo!, holako gauzagatik, bueno!, haundixak esaten die, baiñe...
-Asentzio-letaiñak be eitten zien.
-Eta horrek ze...
-Ba Asentzio-letaiñak zien, hemen bertan eingo zien elixan baiña Angiozarren eitten zien, hori hiru egunetan izeten zan, Asentzio aurreko hiru egunetan. Ermittaik ermitta faten zan, ezta? gurie zan San Migel Monte. Hor egun baten. San Migel Montetik San Bartolomera, egun baten. Gero beste baten San Martinddik San Bizentera. Eta gero Elixamenditik Asentziora. Horrek letaiñok eitten zien, goxien goix letaiñak errezauaz pentsaizu ze ibilaldixak eitten giñuzen. Ez pentsau hemendik horra beste auzora, han distantzia haundixauak daz. Horrek Asentzio-letaiñak.
-Eta hori zahar nahiz gazte...
-Bai, bai. Edozein faten zan. Jente pillie, e. Hemen be eitten zien baiña hemen bertan elixan bakarrik.

29. Gurutze-bidea; Angiozarko ohitura zaharrak

- **Erref:** ARE-011/018
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:21:35. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Angiozarren gurutze-bidea egiteko ohitura. Ohitura zaharren inguruko gogoetak. Bazkalostean bezperetara joan behar izaten ziren. Doktrina.

Transkripzioa

-Angiozarren kurutz-bidia be eitten zan, ez?
-Bai, Elixamendire.
-Hemen halakori, kuruzbidia edo, holako prozeziño...
-Ez. Kalbarixuak beti baiña elixan. Horrek ohitturok, bueno...
-Horrek ohitturok zeuen gurasuengandik jasotakuak.
-Bai, bai, horrek geuk ikusi dittuunak.
-Bai, hor Asentzio-letaiñetan neu behin baiño sarrixao Angiozarren ibilittakua naiz.
-Eta zeuek entzunda etxian, "enee!, ohittura hau galtzen dihardu" edo ez dakit, amari edo aittari?
-Bai, bai.
-Orduan be esaten zan, hau galtzen dago?
-Ez, artien bizirik euen horrek gauzok....
-Ordurarte dana mantentzen zan.
-Bai, artien bizik eozen horrek. Eta bazkalostien bezperetara fatia ta , bueno! Hori e...
-Eske elixa kontuak orduan inportantiak...
-Eta dotriñie ikasi. Bezperetara fan aurretik dotriñie ikasi biher zan. Eta bezpera ostian abariana dotriñara fan eta gero euan denpora libria jolas eitteko.

30. Erromeria garrantzitsuak inguruan

- **Erref:** ARE-011/023
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:26:55. **Bukatu:** 00:29:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Inguruko erromeria garrantzitsuak. Koruetako erromeria; Aozaratza; Larrino.

Transkripzioa

-Erromeixak hemen be egingo ziren inguru honetan?
-Bai.
-Zeintzuk zien ezaunenak?
-Koruetan erromeixa famosotxuena. Entzutia.
-Koruetak euen, Koruetara etorten zan erremeixara jentie Golibarti, Mendiola aldeti, zereti be bai, Urrexola aldeti.
-Arientzan be erremeixia izeten zan.
-Arientzan be bai.
-Koruetan izeten zan Santiago. Hemen setienbreko amabirjiñie. Ocho de setienbre. Baiña hemen be erromeixa haundixa eitten zan, e.
-Eta gero tabernaik ez dago eta gero atia jo eta hona etorten zien.
-Bai, etxietan.
-Etxietara, bazkaittan sobrautakuak ezpada jaten. Nik ikusitte daukat Golibartarrak eta hona etorri ta, ba!, zeozer ardaue edo eskaketan auen eta, klaro, euen emun. Pozik.
-Eta gero Azatzan, hemen Azatzan be bai. Karrozie ta eitten auen, eta bueno.
-Bai, Otalako amerikanue.

-Gero urte mordoska baten Larraiñun oso erromeixa haundixa ein zan, ni etorritta gero, e. Hemen Larraiñun.
 -Eta Azatzan ze eitten zan, karroza?
 -Karrozie eitten euen.
 -Zerera faten zien, Koruetara. Karrozie ba hemen baserrittar bat euen esne saltzen astuaz eta karruaz eitten ebana. Ta karruoi lorakin eta ifintten eben eta kamiñuen eitten eben Koruetatik bueltie ta. Soiñue edo hartu karruen eta.
 -Egun espezialen baten?
 -Bertako jaiegunien.
 -Hor San Juan. Bestien, Larraiñun San Kristobal. Baiña oso epoka txarra izeten zan San Kristobal garixe ereitten zan denporan, orduantxe egoten zien gari danak helduta ta. Ta orduan ez dakit ze erremeixa eingo zan. Baiña gero garixok eta danok ahaztu zieniean ondoren erremeixa haundixa eitten urte batzutan jarraitu eban. Eta gero galdu zan eta oiñ ez da eitten ezebe.

31. Erromerien beherakada

- **Erref:** ARE-011/024
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:29:05. **Bukatu:** 00:30:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Erromeriak noiz hasi ziren galtzen.

Transkripzioa

-Orduan sasoi baten hemen erromerixak indar haundixa eukiko zeuben. Gitxi gora behera ze urtetan hasi ziren indarra galtzen?
 -Segun ze sasoittakue zan. Porejenplo San Kristobalak ba...
 -San Kristobal sasoi txarrena da. Baiña hemen, e...
 -Hemen udazkenekuak eta eukiko eben zer gehixen.
 -Ba Koruetakue juliuen da, Koruetakue famosue izeten zan. Bolalekue ta euken Koruetak ona. Golibar aldeti, hemen Lehet, Arkarazo, Mendiola. Okaranakin ikusitta dauket Antxustegiko andrie, Okaranak, Klaudi-okaranekin astuen ekarri ta saltzen. Hori ikusitte daukat.
 -Elgetara be Bixkai aldetik honek makatz saltzaillak eta faten zien.
 -Bai, oiñ leku danetara erroskillak faten die edo.
 -Len Andramaixak eta San Rokiak izeten zien Elgetan be famosuenak, baiña oiñ pixkat uste dot San Pedro ferixara daukiela kanbixauta Elgetan be.

32. Inguruko herrietako soinu-joleak

- **Erref:** ARE-011/025
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:30:20. **Bukatu:** 00:32:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Soinujole ezagunak inguruan; gertuko herrietatik etortzen ziren soinujoleak.

Transkripzioa

-Eta hemen inguruan soiñojolerik eta bazeuan?
-Garaiko Simon edo. Ez, holako zerik ez. Soiñu, filarmonika txiki bat baeuken. Felixek ondio euko dau nunbaitten. Baiña ez, ez.
-Ze etortzen zien, kanpotik soiñujoliak?
-Bai. Porejenplo hori Itxuan anaia Julian zenbat urtian etorri zan?
-Uff, bai hori urte askuan. Bizikletan etortzen zan...
-Eta Gelatxo edo, besten bat entzunda daukat nik.
-Julian nik kasik beti.
-Julian asko.
-Bizikletia ekarten jakon. Orduan bizikletia. Neu ekarrirta nao bizikletia hari. Atxabaletaraiño etorten zan bizikletan, eta gero ba holako bidietatik etorri bihar izeten zan Arientzara, eta berak fillarmonikie; edo bestan batek eruengo euen fillarmonikia, eta nik bizikletie. Gero eztakit...
-Korueta aldian samurraua eukiko ziñuen ba?
-Bai, zoiez Agarreti bueltan. Oingo moduen...
-Kamiñuan euen.
Kamiñue zeoze baeuen, veintinuevian dago kamiñue eindde ta. Ni veintiunokue, ba zortzi urte. Kamiñue baeuen ordurako. Ni zortzi urte baiño gehitxua. Bañuetxetik gora etorri bizikletiaz, handi deposittoti, [Karaizabaleko?] zubire baeuen sendatxo bat. Handi. Eta Julian...
-Julian urte askuan.
-Bai. Itxua bera be bai. Eta beste bat, beste bat Angiozarkue, han Goiko Tabernakue edo zela zan?
-Nik eztakitt. Itxue ta horretxek anaiok.
-Gelatxo ez.

33. Erromeriak; neskatan-mutiletan

- **Erref:** ARE-011/027
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:34:20. **Bukatu:** 00:36:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Erromerietan dantza egiteko zenbat ordaindu behar izaten zen. Neskatan-mutiletan.

Transkripzioa

-Erromerixia sasoi baten ze izaten zan, plazia edo erosten zeban soinojoliak? Pagau eitten zan zeozet?
-Mutillek lehenao erromeixa zeretan diru bat pagatzen eban.
-Bai, hiru txakur haundi-edo, dirutxo bat pagetan zan.
-Ez dakit zenbat diru zan.
-Hiru txakur haundi edo, erriel bat-edo. Holako huskerixa bat zan. Baiña

ordurako bere dirue zan.

-Ze izaten zan, arratsalde guztirako ala dantza bakoitza pagatzen zan?

-Ez, ez, arratsalde guztirako.

-Papeltxo bat ipintzen otsuen eta.

-Egoten zan baten bat zaintzen?

-Bera, ifintaillia, han ibiltten zan beti. Hemen dantzari esp..., hau da dantzari gehixao, ni neu ez nintzen... Gustau bai, ezta?, eitteko desietan baiña kobardia izen dantzan urteteko edo. Noizbaitten bai urtendako ibilittakuak naz bueltaka, baiñe gutxi. Honek dauko gehixao.

-Eta ze izaten zan orduan dantzia eskatzeko ta?

-Ba "mesedez". Kalabazak emuten baziñuzen ba acuérdate. Ostikaran bat igual atzetik, ni hartuta nao.

-A bai?

-Udelara. Udelara fan erremeixara, enda ba gu kuadrillia auzokuak, bueno! Batei emun gontsan kalabazak, ba ezetz. Gero besten batekin ein giñuan dantzan, eta etorri ta ostikaria. Bai, holakuak be pasetan die.

34. Abadeen debekuak

- **Erref:** ARE-011/028
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:36:05. **Bukatu:** 00:36:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Angiozarko abade batek dantza lotua egitea debekatu zuen.

Transkripzioa

-Orduan kalabazak eta emoten zian...

-Honbre! Hoixe. Gero beste urte batzuk... Desde luego ha abadia bizi bada; honezkero ez dakit bizi dan ala hilgo zan. Angiozarrerra etorri zan abade bat enda dantza lotuoi fuera. Enda erosi euen gramofono bat edo eta ba trikitixia bakarrik. Ezta? Eta jentie ba gastau ein zan. Enda horrek asko galdu eban han Angiozar aldian. Gaztedixia asko galdu zan, hasi zan gaztedixia beste leku batzutara faten eta zerien. Eta hori ni ezkondu aurreko urtiak zien horrek.

35. Garizuma; Aste Santua

- **Erref:** ARE-011/029
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:36:55. **Bukatu:** 00:38:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

Laburpena:

<p>Garizuman dantza egitea debekatuta zegoen. Aste Santuko ohitura zaharrak.</p>

Transkripzioa

-Eta lehen esan dozue Garizuman dantzia eittia be debekauta zegoela.
-Bai, debekauta euen, bai.
-Musikia?
-Bai. Terminatemente prohibido.
-Eta entzunda daukazue Garizuman kanpai espeziala jotzen?
-Garizuman kanpaia jo?
-Garizuman ez zan kanpaia jotzen.
-Ez, ez, behintzet elixen funziñotan eta hirukoik eta kanpan luzeik eta ez.
-Aste Santuan ez.
-Igual Aste Santuan izango da bakarrik?
-Ez dakitt.
-Gero santuek be tapetan zien.
-Bai, bai. Dana izera haundi batek tapaute altarak.
-Noiz hori, aste santuan?
-Garizuman tapatzen zien santuak.
-Eta zeñek tapatzen zittuan, abadiak?
-Bai, abadiak. Aproposko telak eindda eozen.
-Eta zegaittik edo?
-Ez dakit ze zentzu euko eban horrek. Santuak be tapauta ta ya luto konpletua.

36. Hildakoen inguruko ohitura zaharrak

- **Erref:** ARE-011/030
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:38:05. **Bukatu:** 00:41:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Luto kontuak. Senideren bat hiltzen zenean, bi urteko lutoa erabili behar izaten zen. Ohitura zaharrak. Angiozarko hilarrietan elizkizun klase desberdinak ezagutu ditu: ogi txikia, ogi handia. Domu Santu Eguna; Pazkoa.</p>

Transkripzioa

-Baten bat hiltten bajatzun etxien, gurasue edo anaie edo zera, ba bi urteko lutue eukotzun bal-baltzik.
-Lutue baltzik jantzitta eukittie da. Eta bi urtien lutua. Lelengo urtien dana baltza eta hurrengokuan ba zeoze "medio luto" edo hola, zeoze zurixe edo.
-Orduan gogorra izaten zan, ez? Elixia indar asko zekan.
-Honbre!, honbre! Bai. Lutue. Gaiñera hil eta urtebetien dantzaik be ezin zeiketzuen ein.
-Urtebetian dantzaik be ez.
-Eta hori baten batek zaintzen zeban? Bueno, noberak...
-Eta gero bertanbera behintzet desaparezidu zien horrek gauzok.
-Dantzan be eitten be hasiko zan jentie ta. Txartela, porrejenplo...

-Horrek ezaututa dauket nik. Elixan be ezaututa dauket kategorixak: Ogi Txikixa eta Ogi Nausixa.

-Kategorixak zetako baiña?

-Ba hillarrixa ipintten zan, ezta, elixan.

-Bai.

-Hillarrixa ipintten zan, zuk hilddakoik ez badaukotzun ba trapu zuri bat izeten zan. Dotorea, almidonauta ta dotore ta han bi kandela. Hori bakotxak, etxe bakotxan, etxe bakotxak euken bere hillarrixa. Eta gero bat hiltten jatzule ta hori trapu zurixoi kendu ta baltza ipintten zan. Eta Ogi Txikikuak ba baltza, ta Ogi Haundikuak baltza kurtze gorri batekin. Hori distinziñuoi nik ikusitta daukat Angiozarren.

-Ze distinziño zan berez?

-Aberatsa ta pobrie. Klaro.

-Baten entierrua izengo zan karutxuaoa iguel?

-Bai. Batena izengo zan igual xei abadekin eta bestiena ba bikin edo.

-Eta hori? Ipintzen zan mantillia edo?

-Kurtze gorrixe.

-Eta esan dozu ogixa be diferentia. Ogi txikixa eta ogi haundixa.

-Bai, izenak die. Izenak zien, Ogi Haundixa eta Ogi Txikixa.

-Orduan ez zien ipintzen hillarrixan olatak eta?

-Baitta, olatak-eta izeten zien.

-Ogi Haundixa ta Ogi txikixa izenak, besterik ez?

-Bai, izenak zien bakarrik.

-Olatak Domu Santuetan enda... uste dot Pazkua Egunien?

-Bai, bi egunetan zien. Arientzan abariek gizonai emun eitten utsen merixendetako.

-Arientzako abadiak, gero gizonak eukitzen eben urteko juntie horreittan egunetan.

-Bai, lehenako gauza batzuk kanbixau, lehenao basuen beste obligaziño batzuk izeten zien eta haik ardurak euken gizonak kanbixau ta junta, auzo-junta bat eitten zan, eta horreik olatok janaz...

-Olatok abadiak merixendetako emuten ei utsen gizonei, eta beste batzuk berriz, e, nada. Hemen beste auzo batzuetan bakotxak berak gordetzen zittuela, edo eurak jateko edo oilluek eta eukitzen zittuen, oilluei emuteko edo dana dala.

37. Auzoko abadea

- **Erref:** ARE-011/031
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:41:40. **Bukatu:** 00:44:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Auzoko abadearen inguruko azalpenak. Sermoiak euskaraz ematen zituen. Lehenago mezak latinez ematen ziren.

Transkripzioa

-Gero umiek dotriñara faten zienian, honek gure nausixonek eta dotriñara faten zienian, horrei be emuten otsen olatia jateko. Pozik faten zien umiek olatia jateko

-Orduan hemengo abadia...

-Bai, bastante konsideraua zan, bastante konsideraua zan. Hor sentiduen bai.

-Zana zan ba, bueno, ha abadie ordukue zan. Dantzán eta ikusi ezkeró ba hasten zan kanpaiak jotén illuntzien eta jentíe rekojídú, erretiráu arte, daun-daun-daun-daun..!

-Baiña gero azkenengo urtietan ya berak alde eitten eban. Jaieguneko mezioi emuten ebanian ba berak alde eitten eban. Ya ikusi eban ba ala!, gura dozuena eizue.

-Oin zan hola sermoie edo zeozer esan biher bazan, euskeraz baiña jator, e! ta klaru berba. Hoixe baeukan.

-Irakurten eta...

-Euskeraz zirt-zart eukén, bai.

-Eta euskeraz emuten zittuan sermoiak, e?

-Bai, bueno! Hoixe baeukan.

-Eta irakurtzen zan "numero uno". Eta gaiñera boza. Zu Atxabaletakua za? Atxabaletan ointxe be parrokue daukou, boza dauko "de aupa". Eta halakotxe boza eukén harek be. Bai.

-Dana euskeraz eitten eban harek.

-Eta sermoiak ze izaten ziren, gogorrak?

-Bueno, danerakouak. Sermoiak gauza askotan haik esplikaúko dítue ez dakit zein filisteotarren kontuek eta, baiña guk entendidu ez, eta ezebez. Kastautakuen sermoioi kitto.

-Lengo mezie nok ulertzen giñuen? Latiñez ba. Eta oin sikira ba badakiu zer zertzen dan eta ze...

-Eta sasoi batzutan ez zan izaten abadiak zeozergatik hasarre edo, eta sermoiak-eta pulpittotik...

-Bai, holakuek esaten daue bai.

-Lehenagoko kontuak izango die igual.

-Bai, lehenaokuak eta gure denporan be igual bai. Neri ez jat /etxat/ tokau, e.

-Abadian arabera, ez; abadia biharbada diferentia zan...

-Klaro, bai.

38. Auzoko "ermandadea"

- **Erref:** ARE-011/032
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:44:10. **Bukatu:** 00:47:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoén arteko harremana
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Auzoko ermandadea. Auzo batzuk elkarrekin egiten zuten ermandadea. Ohitura zaharrak.</p>

Transkripzioa

-Lehen esan dozue Juntia eta. Hemen auzuetan ermandadiak eta egoten zien?

-Bai. Ganauendakuak.

-San Anton egunien irixak eruaten zien Azatzara.

-Gure zittuenak danak euki gehixa be erueten zittuen. Guk irixek geuken bakarrik.

-Bai, ermandadan segun ze ganau euketzun. Eta han eitten utsen bedeinkaziñue ta gauzok.

-Bedeinkaziñue holako..., pasau apur bat, ba ondo auela edo esan eta aurrera.

-Baiña bedeinkaziñue be bai San Anton egunian.

-A, San Anton egunien? Bueno... Bai?

-Bai, bai. Azatzan eitten zan hori. Eta gero ganauok etxera ekarri ta ba gizonok gero han tertulixia, ardaue edo zeoze bokadillotxon bat eruengo euen etxetik edo ta.

-Bai, ni gaztetxuena nitzen, aittek ni bieldu ta. Hala, mutikue ardaue partiduten. Bi basogaz edo hirugaz gizon danai emuten jakuen. Je-je, janagaz.

-Ermandadia ze izaten zan, auzo bakoitzak berana zekan?

-Ez, Arientzak ez. Guk Azatzakuaz geukan. Koruetan be bazan zeozer, Mendiolan be bai.

-Arientza eta Azatza zien bakarrik?

-Gu Azatzara faten gitzen, eta ez dakit nik, Larriñotik be baten bat etorriko zan edo. Azatzar danak eta Irabangua be hor egongo zan ba.

-Eta zer izaten zan, bakoitzak zekazen aberiak ikusi, tasau...

-Tasau.

-Bai, bai, tasau...

-Bat akabau edo eitten bajatzun, ba hor ermendadien eozen danen artien ha pagatzen otsuen. Enda zer balore euken ba hor izengo zan. Tasatzailliek izengo zien gizonen batzuk.

-Eta porejenplo txalgiñen behi bat akabau eitten da, ezta, eiñ ezindda. Ha narrue kendu eta aprobetxau eitten da. Behixek ba ez dauke enfermedadeik. Ez dot pentsetan behintzet daukenik, ez dau eukitten. Narrue kendu eta zatittu bakotxai toketan jakona. Ekarritta dauket neuk be holako okelia etxera. Hoixe izeten zan.

-Oin ba konjeladorie ta daukotzu, ezta, baiña orduen zezeiñia eitten zan.

-Siketu.

-Orduen gatzat emuten jaten eta gero siketu.

-Eta ya esta.

-Eta hola konserbatzen zan.

-Orduan repartidu eitten zan okelia.

-Bai. Okelia ermandadiak partidu. Hori ikusitta daukat.

-Eta egoten zan basarriren bat ermandadetik kanpo edo?

-Egongo zan baten bat igual.

-Bai, egongo zan. Beti die, baten bat beti izaten da. Baiñe geu beti leku danetan izen ga.

39. Baserritarren osasun-asegurua

- **Erref:** ARE-011/033
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:47:20. **Bukatu:** 00:48:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Aretxabaletako baserritar guztiek osasun-aseguru bat sortu zuten.

Transkripzioa

-Lehen medikutzarako be ez geuken geuretako seguroik ezelakoik be, ta bat asmau ein giñun zela-hala herrixen, Atxabaletan.
-Atxabaletako basarritar danen artian.
-Danen artian. Eta ba, klaro, hori be zertu ein bihar da, ezta. Eta gero hori be kastau ein zan, gero seguridade soziala...
-Eta hori ze urte ingurutan asmau zenduen seguro hori?
-Hori ba ni etorri ta gero behintzat.
-Bai, neu be egon nintzen eta. Neu be egon nintzen eta. Batek badaki zela ein euen holako kaskarkerixa bat.
-Cincuenta y tantos?
-Cincuenta y tantos? Gutxitxuao izengo da. Ni etorri nintzeniean ez euan hemen seguroik ezebe. Cuarenta y ocho años?
-Holako bat izengo da.
-Holakon bat.

40. Suaroa; etxe-erre batzea

- **Erref:** ARE-011/034
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:48:25. **Bukatu:** 00:49:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Suaroa, baserriren bat erretzen zenean egoten zen aseguria. Etxe-erre batzea.

Transkripzioa

-Eta lehenago antzinan basarrin batek sua hartzen bazeban, egoten zan seguroren bat?
-Suaruak esaten jakon. Seguru bat Suarokua. Han be egongo zintzen ba seguramente.
-Bai, bai. Eta erre zan Ugastein ez dakit ze etxe eta, emuten jakon holako desgrazia euki [dabena ba] anea erdi gari edo, ezta. Asko emutia da anea erdi gari edo. Hori batu eitten zan. Paraje... ezaun-pide barruan, kontorno reduzidu baten iguel hori. Eta gero hasi zan jentie papela eiñ, eta ez dakit nunguek izengo zien, baiñe gero eskien-eskien, beti eskien, ezta, eta jentiek galdu eiñ euen zera...
-Konfiantzia.
-Eta gero kastau ein zien eta jarri zien honek seguro haundixok, hobeto pagau biher die baiña, seguro jatorrak die.
-Orduan jentia tranpia?
-Bai, jentia beliela. Uekue badao jentie beliela hasten da sartzen.
-Eta gero ba beti etxe-erre batzen, etxe-erre batzen beti. Orduen sarri etortzen zien etxe-erre batzeillak.
-Bai.

41. Arantzazuko fraideak

- **Erref:** ARE-011/037

- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:52:30. **Bukatu:** 00:55:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Arantzazuko fraideak eskean baserriz baserri.

Transkripzioa

-Eta bestela frailiak eta etortzen zien (eskian)?

-Bai. Frailiak Arantzazukuak etortzen zien...

-Txarri-hangak batzen eta.

-Zer batzen?

-Txarri-hankak batzen be bai. Babia batzen, garixa batzen. Eta urtien zer, horrek hiru bat bider bai behintzet.

-Urtien hiru bat bidar?

-Bai, bai. Hiru epokatan etorriko zien horrek. Gontzarrin frai Ramon. Ha, lo be han eitten eban jeneralmente. Kargie ba han ixten eban eta gero guk bajatzen giñuan Angiozarrera etxe batera, eurak amistadie eukenera, eta gero handik Arantzazura eurak erueten eben. Eske orduan Arantzazun badakitzu zenbat jente!, zenbat jente euen! Jaten eta jaten emuteko bakarrik.

-Mutil asko gainera.

-Bai. Eta Horrek urtian hiru bat bider bai.

-Eta txarri-hankak expresamente?

-Txarri-hankak be bai.

-Bueno, haik urdaiazpiko zati bat emun ezkerro be igual fango zien, baiñe jeneralien sasoia txarri-hankak egotekua...

-Eta baba-denporan ba babia batzen euen, garixen denporan ba garixe. Enda horrei limosna onak emuten jaten, nik uste dot. Limosna onak, astokara garixa Gontzarrittik behin baiño sarrixao emun gontsan. Han batutakua karga galantakin ibilli be bai frailliak. Gero ipiñi euen hola Ama Birjiñatxo bat etxeik etxe, etxeik etxe ibiltten zan.

-Hori hemen be ezautu zendun?

-Bai. Enda gero hori be erretirau euen.

-Eta hori zeñek, Arantzazuko frailliak?

-Arantzazukuak bai, Arantzazuko batzen ebanak. Horrek gari batziok-eta gastau zien eta gero ba hori Ama Birjiñioi ibiltten zan etxeik etxe.

-Eta hori nok ifiñi euen, Arantzazuko frailliok ifiñi euen?

-Bai ba. Baiña hori be ya erretirau euen. Oiñ Arantzazun haik bestela batuko daue horrek frailliok. Badauke euren merittue, euren merittue dauke. Haik horrek teillatu barrixak eta zerak ein zittuenien be, limosna moduen eskatzen eben teilla baten baloria. Ba uste dot obra dana eiñ eta sobrau jaten milloiek honen drogadiktuen eta zererako itxi zittuen.

-Dirue nunbaitetik [...]. Eta bueno, enplio ona emuten dutsie, droga, drogie apur bat zerketako.

-Eskola bat zabalketako, holako bat igual ipintten dabe, eta harako be dirua batu eitten daue horrek.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com